Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO
Alkatetza
Alcaldía



Auzotar agurgarriak:

Nabarituko zenuketenez, dagoeneko San Bartolomeko hiri-garapenerako lanak hasi dira. Hiri-ekintza hau Artatza kaletik hasi (Telleriako biribilgunearen parean) eta herri ikastetxearen, baselizaren eta Kulturgunearen eremuraino Basañesen zabalduko da, eta Achucarro kaletik, San Bartolome kaleraino bertaraino.

Ekintza honek 5 milioi euro inguruko kostua izango du. Lanei esker, honakoak egin nahi dira: San Bartolome kalea erabat berritu (lurrazpiko zerbitzuak, asfaltoa, espaloia eta argiak) eta bateriari aparkatzeko aparkalekua egin; Achucarro kalearen amaierako tartea erregularizatu, zuzkidura horiek ere atonduz; San Bartolome plazaren gaur eguneko azalera bikoiztu; ohiko probalekua berreskuratu; eta Altzagaondo parkea sortu (auzo guztian zehar ibili ahal izateko, Zarragabarrena, Altzagaondo eta San Bartolome parkeetatik).

Urbanizazio lanak egiten diren bitartean, 190 etxebizitza inguru (horietako 30 babes ofizialeko etxebizitzak izango dira) eraikitzeko lizentziak ere emango dira.  Era berean, Bizkaiko Eliza katolikoak bere kargu hartu ahal izango du otoitz leku berri baten eraikitzea, gaur egungo tenplua ordezkatzeko asmoz.

Urbanizazio lan horiek direla-eta (Udalak inguruko auzotarrekin nahiz Auzotarren Elkartearekin egindako bileretan azaldu zituen), aldaketak izango dira auzoko ohiko joan-etorrietan; izan ere, kaleetako batzuen ohiko funtzionamendua aldatu egingo da, lanek aurrera egin ahala. Horrek ahalik eta

Estimados vecinos y vecinas:

Como habréis apreciado, han dado comienzo las obras del desarrollo urbano de San Bartolomé. Esta actuación urbana abarca los suelos comprendidos desde la calle Artatza, a la altura de la rotonda de Telleria, hasta la zona del Colegio público, la Ermita y la Kulturgunea en Basañese, y desde la calle Achucarro hasta la misma calle San Bartolomé.

La actuación, con un coste de entorno a 5 millones de euros, pretende renovar completamente la calle San Bartolomé (servicios subterráneos, asfalto, acera y alumbrado) y dotarla de aparcamiento en batería, regularizar el tramo final de la calle Achucarro habilitando también estas dotaciones, ampliar al doble de su actual extensión la plaza San Bartolomé, recuperar el tradicional carrejo de pruebas y crear el Parque de Altzagaondo (de modo que se pueda transitar a lo largo de todo el barrio a través de los parques de Zarragabarrena, Altzagaondo y San Bartolomé).

Al tiempo que se llevan a cabo las obras de urbanización, se irán concediendo también las licencias de edificación de entorno a 190 viviendas, de las cuales 30 serán VPO. Del mismo modo, el Obispado podrá obtener licencia para construir, a su costa, un nuevo templo que sustituya la actual iglesia del barrio.

Las citadas obras de urbanización, que el Ayuntamiento tuvo ocasión de explicar en reuniones realizadas con vecinos y vecinas de la zona, así como con la propia Asociación vecinal, van a generar modificaciones en el tránsito habitual del barrio, de modo que algunas de sus calles verán alterado su normal funcionamiento




eragozpen gutxien sortzea espero dut, eta, nolanahi ere, gurekin harremanetan jar zaitezkete, arazoen berri emateko edo ideiak eta iradokizunak helarazteko; horretarako, Udalaren Bulego Teknikora (94 400 80 05) edo Udaltzaingora (94 400 80 21) jo dezakezue. Era berean, mezu elektronikoen bitartez ere egin dezakezue (hirigintza@leioa.net edo udaltzaingoa@leioa.net). Era berean, urbanizazio lanen ardura duen enpresak harremanetarako pertsona bat izendatu du xede horretarako: Luis Miguel Martínez (telefonoa: 678 612 474).

Seguru nago datozen hilabeteotako eragozpenak eta nahasmenak azkenean onerako izango direla. Eta, edozelan ere, eragozpen horiek ahalik eta gehien murriztu ahal izatea espero dut.

Agur t'erdi,

a medida de que las obras vayan avanzando. Confío en que las molestias que ello puedan generar sean las mínimas posibles y, en todo caso, no dudéis en poneros en contacto para transmitir los problemas que apreciéis, así como vuestras ideas y sugerencias bien con la Oficina Técnica municipal (94 400 80 05) o bien con la Policía Local (94 400 80 21). También podéis hacerlo a través de sus correos electrónicos (hirigintza@leioa.net o udaltzaingoa@leioa.net). Igualmente, la empresa encargada de las obras de urbanización ha designado una persona de contacto, Luis Miguel Martínez (teléfono 678 612 474) para tal efecto.

Estoy seguro de que el resultado final compensará las molestias y distorsiones de los próximos meses. Y confío, en todo caso, en que podamos reducirlas al máximo.

Un saludo,



*Eneko Arruebarrena Elizondo*
Alkatea

www.leioa.eu

Elexalde, 1
48940 Leioa (Bizkaia)

T. 94 400 80 13
F. 94 464 28 49